



2011ko ekitaldiko karga-tasak

Lakuntzako Udalak ondotik ematen den erabakia hartu zuen, 2010eko azaroaren 4an egin osoko bilkuran eta legeak eskatzen duen quoruma zuela. Hona hemen haren testu osoa:

- 1.-Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko karga-tasa % 0,255 euro.
- 2.-Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko karga-tasa % 0,70 euro.
- 3.-Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan 1,2 indizea aplikatuko da.
- 4.-Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordainarazteko karga-tasa % 3 izanen da.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergarako, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175 eta 176. artikuluetan ezarritako gutieneko portzentajeak aplikatuko dira. Tasa: % 10.
- 6.-Tasak:
 - DINA 3 fotokopiak: 0,15 euro/orria.
 - DINA 4 fotokopiak: 0,10 euro/orria.
 - Konpultsak: 0,60 euro.
 - Faxez bidaltzea: 0,60 euro.
 - Ura:
 - a) Etxeko kontsumoa: 60 m³ bitarte: 0,316 euro/m³; 61 m³-tik goiti: 0,56 euro/m³.
 - b) Industriako kontsumoa: 450 m³ bitarte: 0,49 euro/m³; 451 m³-tik goiti: 0,72 euro/m³.
 - c) Mantentze lanetako kanona: 2,38 euro.
 - d) Hartunea hornidura sarera: 368 euro.
 - e) Kontagailua paratzea: 92 euro.
 - Hilerriko zerbitzua: udalak kontratatu duen zerbitzuaren gastuak.
 - Merkatu txikia: 6 euro/eguna saltokia.
- 7.-Hirigintzako aldaketak tramitatzetik heldu diren publizitate gastuak kobratzea.
- 8.-Zabortegiko tasak:
 - Fundizio areak: 4 tona arte: 100 euro.
 - 10 tona arte: 150 euro.
 - 40 tona arte: 100 euro.
 - Lur begetalak eta obra-hondakinak: 4 tona arte: 12 euro.
 - 10 tona arte: 18 euro.

-40 tona arte: 24 euro.

Lakuntzan, 2010eko azaroaren 17an.-Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

Iragarkiaren kodea: L1019000

2015eko zerga-tasak, tasak eta prezioak

Lakuntzako Udalak, 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, erabaki hau hartu zuen, erregelamenduzko quorumarekin:

1. Lur-ondasunen gaineko kontribuziorako % 0,20ko karga-tasa ezartzea.
2. Gainerakoei dagokienez, 2015. urterako 2014ko zerga-tasak, tasak, prezioak eta kuotak mantentzea.
3. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan. Haren kontra egungo legeetan ezarritako errekurtsioak aurkeztu ahalko dira (administrazioarekiko auzi-errekurtsioa edota, aurretik eta aukeran, gora jotzekoa eta berraztertzekoa).

Lakuntzan, 2014ko abenduaren 2an. –Alkatea, José Ramón Garin Lizarraga.

Iragarkiaren kodea: L1416498